

## Nafar hizkuntza



### '1512. NAFARROA, IN MEMORIAM'

Egilea eta ilustratzailea: Juan Luis Landa

Argitaletxea: Erein

Orrialdeak: 248

Ale kopurua: 2.000 (euskaraz) eta 2.000 (gaztelaniaz)

Salneurria: 37 euro

Ezkerrean, liburuaren ilustrazio bat. Irudi guztiak txuri beltzean eginak daude, akua-rela, arkatza eta tinta erabiliz; ondoren, kolorea ordenagailuarekin eman zaie.

JUAN LUIS LANDA ILUSTRATZAILEA, '1512. NAFARROA, IN MEMORIAM' LIBURUAREN EGILEA

# “Nire ametsa zen Konkistaren historia jendearengana iristea”

Lau urtetako lana eman ondoren, Juan Luis Landa ilustratzaileak (Errenteria, 1965) Nafarroako Konkistari buruzko historia osatu du izugarriko irudiekin. Argitalpenaren arrakasta ikusita, orain 2.000 ale kaleratu dira euskaraz.

NEREA ALEJOS Iruñea

Argi dago oso erraza egiten zaizula Erdi Aroa irudikatzea. Betidanik erakarri zaitu?

Egia esan, txikitik Historia gorrotatzen nuen, behintzat hura irakasten ziguten moduan. Aspergarrira iruditzen zitzaidan. Ondoren, hemezortzi urtekin, aukera izan nuen Euskal Herriko historia komikietan egiteko, *Gabai, gure herriaren historia* bilduma, hain zuzen. Banekien Nafarroako Erresuma bat izan zela, baina aukera honekin jakin ahal izan nuen gehiago Nafarroako historia. Aldi berean, nire kabuz hasi nintzen informazioa bilatzen. Era hortan, gero eta erakargarriagoa iruditu zitzaidan, batez ere Nafarroako Erresumaren jatorriaz



Juan Luis Landa, Nafarroako Errege Artxibo Nagusian, bere liburuaren ilustrazio bat erakusten.

CALLEJA

gertatu baino sei urte lehenago jaio zen, baino inoiz ez da hitz egiten bere bizitzaren zati horretaz. Txikitatik bizi izan zuen Gaztelak Nafarroan eragindako tragedia. Azkenik, familia osoa ihes egin behar izan zuen, heriotza-zigortean. Lurra guztiak kendu zizkieten eta gabezi handiak jasan izan zituzten Nafarroa defendatzeagatik.

**Liburu honekin lau urte eman ondoren, nola aldatu da zure ikuspegi konkistaren inguruan?**

Hasieratik ikusi nuen bidegabekeria izan zela, konkistak Nafarroara tragedia bat ekarri zuela. Jendeak gertaera hauek jakingo balitu, ziur aski gaur egungo politikan ez lukete gauzak ikusiko gaur ikusten diren bezala.

**Azkenean, 500 urte pasa behar izan dira konkista hitza bera onartzeko.**

Hori pauso handia izan da!! Ezin da ukatu egia. Argi eta garbi ikusten da konkista bat izan zela. Nafarroa puntu estrategikoa zen Orreagako igarobideagatik, “Espainiako erreinuetarako ate eta giltza” izendatzen zuten. Fernando Katolikoak abilezia handiz jokatu zuen aitzaki horrekin.

**Ilustrazioak xehetasun oso eginak daude, aintzinako koadroak bezala. Nola lantzen zenituen?**

Oso zaila egin zitzaidan ilustrazioak aukeratzea. Testua landu nuenean, nik edozein tokitan ikusten nuen irudi bat. Denboraren aldetik, oso prozesu luzea izan da. Liburuaren puntu gorena Noaingo gatazkaren ilustrazioa da. Bost mila gerlari borrokatu zuten Noaingo zelaietan: nafarrak, gaskoiak, bearniarrak... Lan itzela zen ilustrazio hori burutzea! Dokumentazio pila bat erabili nuen armadurak edo zutoihalak egiteko. Hilabete bat eraman nuen, hamar ordu betetzen egunero.

**Eta espero ez zenuen arrakasta ikusita, zer iruditzen zaizu?**

Harrিতa geratu gara. Nire ametsa zen historia hau jendearengana iristea, ilustrazioen bidez modu erakargarri batean kontatzea. Erein argitaletxeak egin duen apostua eskertu nahi dut, ausardi handiz jokatu duelako krisi garai honetan. Sekulan ez naiz behar bezain eskertua izango.



lehiaketak

Apirilak 14, larunbata

**HAUR PROGRAMAZIOA EUSKARAZ**  
**Ali Baba eta 40 lapurrak (Borobil Teatro)**

Civivox San Jorge zentroa  
12:00etan eta 18:00etan  
Sarrerak, 3 euro

Argibide gehiago: 010 telefonoa • www.pamplona.es

zegokiena. Horri lotuta, beti sentitu dut maitasun berezi bat Nafarroagatik. Haurtzaroan, gurasoekin izaten ginen oporretan, Lizarra inguruan. Nafarroako Erresumaren amaieraz irakurri nuenean, harrituta geratu nintzen. Gertaera lotsagarriak eman zirela iruditu zitzaidan. Liburu honetan prozesu historiko guztia kontatzen dut modu kronologiko batean, aldi berean fikzioarekin lotuz, gertaera historikoak batere aldatu gabe. Hori bai, alde gizatiarra islatu izan nahi nuen.

**Eta zergatik aukeratu zenuen Frantzisko Xabierreko pertsonaiaren ikuspegia?**

Konkistaren prozesuan, bere fa-

ESALDIK

“Frantzisko Xabierrekoaren familia gabezi handiak jasan izan zituzten Nafarroa defendatzeagatik”

milia garrantzi handia izan zuen, Nafarroako erregeen alde jokatuz. Adibidez, bere aita erregeek oso kontuan hartzen zuten kontseilaria zen. Beste aldetik, Eliza Katolikoa, Frantzisko Xabierren pertsonaiak asko jabetu dela iruditu zitzaidan. Konkista